

**OHARRA: Arazo teknikoak zirela eta grabaziorik ez zen egon.
Por problemas técnicos, no se pudo realizar la grabación.**

AKTA 26
ACTA 26

2010KO URTARRILAK 28
2010.-

28 DE ENERO DE

ORGANOA: UDAL BATZARRA
ORGANO: AYUNTAMIENTO PLENO

BATZARRALDIA: OHIKOA
SESION: ORDINARIA

TOKIA: UDALETXEKO OSOKO BILKUREN ARETOA
LUGAR: SALON DE PLENOS DE LA CASA CONSISTORIAL

EGUNA: 2010KO URTARRILAK 28
DIA: 28 DE ENERO DE 2.010

HASIERA ORDUA: 19:00
HORA DE COMIENZO: 19:00

LEHENDAKARIA: Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA.
PRESIDE

ZINEGOTZIAK: BERTARATUTAKOAK
CONCEJALES: ASISTEN

Andoni ETXANIZ OSA
Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA
Lide AMILIBIA BERGARETXE
Unai MANZISIDOR ANDONEGI
Manuel ZUBIA ARTABE
Nerea EPELDE AZKUE
Joseba Josu AZPIAZU AZKARRAGA
Pilar ETXABE IRIONDO
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ
Paloma HEREDERO NEGREDO

Cristina FORCADA UNANUE.
Xabier OLAIZOLA ANTIA.

EZ DIRENAK BERTARATU:
NO ASISTEN:

IDAZKARIA: GORKA URGOITI AGIRRE
SECRETARIO:

Alkate jaunak bilera eratutzat Se da por constituida la sesión
ematen du. por el Alcalde-Presidente.

ALKATE-LEHENDAKARIA (EA): **AURREKO BILERETAKO
AKTEN ONARPENA, BIDEZKO BADA: (2009.12.10 eta
2009.12.30)**

Aho batez onartzen dira.

Bigarren puntua: **ZUMAIA LANTZEN, E.A.-RI EPE MOTZERAKO
MAILEGUA EMATEAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA.**

Epe motxerako mailegua. Zumaia Lantzenen egoera ekonomikoa ez da onena,

Hitzarmen urbanistikoak tarteko, krisialdi ekonomikoa dela eta ez dela, espero ziren diru sarrera batzuk bertan behera geratu dira. Torreagako proiektuak eztabaida sortu du. Egoera ekiditeko 2.500.000 €ko mailegua Udalari eskatu dio; urte beteko epean itzultzeko.

Kontuan hartuta Zumaia Lantzenek diru sarrerak honako hauek izango dituela:

- Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako hitzarmen urbanistiko baten ondorioz 1.440.000€ko diru sarrera.
- Korta industrigunean duen lursail bat saldu ondoren 500.000€ko diru sarrera
- Torreagako hitzarmenaren ondorioz ere diru sarrerak edukitzeko aukera izango du, 600.000€koa hain zuzen ere.

Horiek izango dira Zumaia Lantzen-ek ziurtatuko dituen diru sarrerak urte betean.

Epe ertainera Odietako etxebizitzaren salmentatik sarrera batzuk ere izango ditu eta horrela ziurtatuko dugu Zumaia Lantzen-en baliabidea baliatuz 2.500.000€ horien nolabaiteko itzulketa izango dugula.

Orokorrean hau da denok dakigun operazioa, baina zehaztasun gehiagorekin Josebak azalduko du:

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA, JNA. (TALDE MISTOA): Hemen arazoa Zumaia Lantzen-en egoera kaxkarra, tesorerian da. 70.000€ko saldoa besterik ez du. Horrek bultzatu du mailegua eskatzera, urte betera.

Itzultzeko miloi bat urte betean eta geratzen den beste 1.500.000€, Odietako etxebizitzaren salmentekin lortzen diren diru sarrerekin.

Iruditzen zaigu aukera egokia dela epe motzera egitea mailegua.

2.500.000€ gaur derrigorrezkoa da ematea ze... Bankoako mailegau 2.500.000€koa da; eta orain 1.500.000€ ordaindu behar zaio Bankoari eta beste 1.000.000€ geratuko litzateke hornitzaileei ordaintzeko (ia 700.000€ dago ordaintzeko hornitzaileei). Margena 300.000€koa geratzen zaizkie.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND. (EAJ-PNV): Arratsalde on. Inakik gauza bat esaten du eta Josebak beste bat esan du. Eta Zumaia Lantzenek, berak, konsejuko kideei luzatu zien txotena.

Zumaia Lantzenek udalari 2.500.000€ko mailegua eskatu dio epe motxera urte betera, inolako interesik gabe. Orduan Udalari tokatzen zaio erabakitzea mailegu hori ematen duen edo ez. Arazoa momentu honetan Zumaia Lantzen-en egoera kaxkarra omen da.

Arazoa gure ustetan da eta izan da azken bi urte luza hauetan Gobernuak Zumaia Lantzen-ekiko izan duen jarrera kaxkarra. Hasieratik Udaletik uko egin zaio Zumaia Lantzen-ekiko ehun ehuneko Udal izaerari.

Behin eta berriz esan dizuegu ezin zenutela alde batera utzi Zumaia Lantzen.

Zumaia Lantzen-en zorra Udalaren zorrak direlako, beste zorren artean. Bazirudien ez zenutela ikusi nahi ere egin. Orduan, orain egoera honetan gaude. Baina ez da bere kasa sortu den arazoa, baizik eta Gobernuaren Zumaia Lantzenekiko uskeriagatik eta utzikeriagatik sortuta baizik.

Iñakik gauza bat esan du eta Josebak beste bat. Iñakik esan du urte bete horretan Jaurlaritzarekin egin den hitzarmenaren bitartez lortuko direla 1.500.000€ gutxi gora behera eta bese miloia Korta Poligonoan dagoen lur sailaren salmentatik.

Josebak esan duenez, Torreagako hitzarmenaren 600.000 € diru sarrerati. Por cierto, Torreagako hitzarmenean noiz izan dira 600.000€koa? Nire ustetan 3.200.000€tik gora ziren. Nola da posible 3.200.000€-tik 600.000€-tara jeistea? Edo hori ia ontzat emanda daukazute erabaki formal bat adostu gabe?

2007an aurrekontuetan bazeuden Udaletik Zumaia Lantzen-era pasatzeko aurreikusita zeuden diru batzuk; eta oker ez banago 2008ko aurrekontuak aprobatzeko orduan eskatzen genizuen, bai 2007an geratutaio haiek eta bai 2007ko kreditua errespetatzeko Zumaia Lantzen-era pasatzen joateko. Baina nonbait ez zenuten kasorik egin, ez zitzaizuen axola.

Ez dago hemen kontuhartzailea, baina nik egingo nizkioke galdera batzuk, zeren.... kontuhartzailearen txostena maileguaren aldekoa da beti ere txosten ekonomikoaren baldintzak betetzen badira. Kontuhartzailearen txostena hau al da?

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA, JNA. (TALDE MISTOA): Kontuhartzaileak esaten duena da Zumaia Lantzen-en planteatzen den bezela, mailegu horren itzulpena onartzen duela.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND. (EAJ-PNV): Ba al dago txostenik?

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA, JNA. (TALDE MISTOA):
Hori da;

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND. (EAJ-PNV): Ez.
Hau Diktamena da.

Orduan, kontuhartzailearen txostena baldintzatua da, baldin eta betetzen badira baldintza horiek ontzat ematen du. Baina epe laburra denez, mailegu eskaeratik urte beteko epea dago baldintza betetzeko.

Ez badute betetzen 2008an gertatuko litzateke Zumaia Lantzen-en txosten ekonomikoan eskaeraren epean bete dira eta azaltzen dituen guzti hauek betetzen dituela eta hemendik urte betera ikusiko balu betetzen ez dutela, horrek eramango duela Kontuhartzailearen txostenaren balioeza?

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA, JNA. (TALDE MISTOA):
Hori, kontuhartzaileari galdetu beharko diozu. Informe bat egin du eta informe horrek esaten duena da Zumaia Lantzen-en eskaeraren baldintzak betetzen badira bere txostena da ontzat ematea.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND. (EAJ-PNV): Bale;
Baina kontua da, Bankoaren kreditu bat abenduaren 31an benzitutakoa. Orain dela bi urte eta hilabete edo eskatutakoa, ehuneko hiruko interesarekin gutxi goa behera. Kalkulua egiten baduzu Bankoaren kredituak 150.000€ kostatu zaie Zumaiarrei, Zumaia Udalak eman behar dio Zumaia Lantzen-eri 2.500.000ko mailegua interesarik gabe, besteak beste Bankoarekin duen mailegua ordaindu dezan. Bankoari eskatu beharrean Udalarri eskatu balitzaio kreditu hori, gutxienez egun 150.000€ horiek aurreztuko lituzke.

Hau da beste adibide garbia, zer nolako erabakiak hartzen ohituta zaudeten.

2.500.000€ horietatik, norbait Bankoaren kreditu erdiaekin itzuliko da eta gainontzekoa

Bankoarekin, ze baldintzetan?

Ze interes tasatan? 1.200€ eguneko interes atzerapen horiek hondoratuko dizkiguten edo ez, ez duzue argitu. Eta gainontzekoa bideratuko da elkarte publikoaren gastu arruntak, funtzionamentu gastuak ordaintzea. Eta abenduaren 31ko zorrak ordaintzea. Beste adibide bat nola hartzen dituzuen erabakiak.

Beteko al dira txosten horretan Zumaia Lantzen-ek dituen helburu horiek? Espero dugu baietz.

Gure ustetan informazio gehiago azaldu behar da. Zumaia Lantzen elkarte publikoa da, udal erakundea da. Zumaia Lantzen-en zorra haunditze bada horrek ez du Udal kontu kontsolidatuaren zorra orokorra handitzen? Edo bai? Horrek badu zer ikusirik Foru Aldundiak Plan E de Salvamento horrekin?

Beti gabiltza zuloak tapatzen. Hau ikaragarritzko zulo bat da.

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ, (PSE-PSOE): El Dictamen nace de un informe que avala la posibilidad de otorgar crédito a Zumaia Lantzen.

Es preciso conocer el informe técnico del Interventor que se entregó en Comisión de Hacienda.

Esto es consecuencia de una decisión política, pero no deja de haberse creado un problema. El coste político de quitar a Ezarbe de enmedio. El Ayuntamiento no tiene capacidad. Zumaia Lantzen ha quedado descapitalizada. El pedir préstamos tiene un coste. El problema de Zumaia Lantzen hay que reconocer que es que la comisión de Gobierno ha aceptado la situación.

Sin el dictamen se hace difícil. El crédito no se puede devolver en un mes. De qué estamos tirando? de un remanente que viene de atrás. Que no se ha gastado, lo mismo que podíamos haber hecho ahora. No hemos tenido que recurrir a una situación especial sino que tirar del remanente, eso es así de claro. Por lo tanto el problema económico no existía.

Los 600.000€ de Torreaga están en el aire. Lo del Gobierno Vasco se va a cobrar un millón quinientos mil euros pero... Odieta no se acaba en un año; Zumaia Lantzen no puede vender viviendas en un año.

Es un parche para salvar Zumaia Lantzen este año, sino habrá que prorrogar la devolución. No va a tener ingresos en un año. Solo sirve para sufragar gastos corrientes.

Nos habéis metido en ésto porque habeis querido, tenemos que decir que sí, porque decir que no es politicamente responsable. Zumaia Lantzen tiene que salir adelante necesariamente, lo habeis hecho adrede, a conciencia.

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Sí, Sí, ha sido a conciencia.

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ, (PSE-PSOE): Vamos a decir que sí por responsabilidad con el pueblo de Zumaia, no porque lo merezca el equipo de Gobierno.

Si no ingresa tiene que endeudarse y al final tiene que pagar el pueblo de Zumaia, la situación actual es consecuencia de una decisión vuestra.

El crédito es de un año. Es imposible que lo devuelvan. El coste de lo que tienen que ejecutar es superior a los ingresos que se esperan. Votamos que sí por responsabilidad con nuestros votantes y con los que no nos han votado.

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA. (ARALAR/ALTERNATIVA): Nahiz eta Zumaia Lantzenen alde ez gauden mailegua beharrezkoa ikusten dugu eta erresponsabilitatearengatik bozkatuko dugu baietz.

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Ikuspegi desberdinak oso nabarmenak dira, gauzak bere osotasunean ez dira esaten, PNV-ko bozeraemaileak galdera asko egin ditu baina batzordean egiten dira galderak, ez hemen; Batzordean egingo balira galderak kontuhartzaileak erantzungo luke.

Mailegua bueltatu behar den edo ez beste urtebetez bueltatu daiteke, beste urtebete izango luke bueltatzeko....

Zergatik ez dio udalak lehenago egin Zumaia Lantzeni mailegua? Udalak utziko balizkio kontuak, aurreratuko luke.

Aurreko egoera ekonomikoa oso bestelakoa zen oraingoarekin konparatuz, Zumaia Lantzenen administrazio Kontseiluak gehiengo botoekin onartu zen, guztien aldeko botoekin.

Orain banketxera joango behar balu ez liokete mailegurik emango eta gainera hipotekatuta egingo litzateke.

Publikoa da Zumaia Lantzenen langileen soldata. Ez dira ehun eta hoge mila euro baizik eta ehun mila, orain arte Esarbek bi miloi euro kobratzea aurreikusten zuen.

Kudeaketa eredu hau merkeagoa da, aldeko bozka emango dugu ardura politikoz,

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA. (TALDE MISTOA):

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Oso ondo, eskerrik asko, botatzera pasako gara PNV?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Aldeko botoa

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldeko botoa, PSOE

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ, (PSE-PSOE): A favor

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: A favor ARALAR-ALTERNATIVA,

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA. (ARALAR/ALTERNATIVA): Aldeko botoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldeko botoa, TALDE MISTOA,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Alde

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldeko botoa, Pili

PILAR ETXABE IRIONDO AND. (INDEPENDIENTE): Aldeko botoa eta EA-k ere Aldeko botoa

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 13 boto (4 EAJ-PNV; 2 PSOE; 3 Grupo Mixto; 1 EA 2 Aralar/Alternatiba; 1 Independiente)

Aurkako botuak: 0
Abstentzioak: 0

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 13 votos (4 EAJ-PNV; 2 PSOE; 3 Grupo Mixto; 1 EA 2 Aralar/Alternatiba; 1 Independiente)

Votos en contra: 0
Abstenciones: 0

LEHENENGOA: ZUMAIA LANTZEN, SA-RI EPE MOTZERAKO MAILEGUA EMATEA AHO BATEZ ONARTZEA,

PRIMERO: APROBAR POR UNANIMIDAD, LA CONCESIÓN DE UN CRÉDITO A CORTO PLAZO A ZUMAIA LANTZEN, SA.

Hirugarren puntua: **URGENTZIAZ AURKEZTUTAKO MOZIOA: AITOR IBARGUENGOITIA INGURUMENAKO TEKNIKARIAK ESKATUTAKO LAN BATERAGARRITASUNA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.**

ALKATE-LEHENDAKARIA: gai hau urgentziaz sartzea bidezkoa den ala ez bozkatzera pasako gara lehenbizi.

EMILIANO CABAÑAS (PSE-PSOE): El grupo socialista solicita conste en acta su queja por no haberse presentado la moción traducida al castellano y deciden abandonar la sala de plenos.

(EAJ-PNV): M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND: Aldeko botoa

(ARALAR/ALTERNATIVA): XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Aldeko botoa,

(TALDE MISTOA): ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Alde

(INDEPENDIENTE): PILAR ETXABE IRIONDO AND.: Aldeko botoa eta EA-k ere Aldeko botoa

(EA): ALKATE-LEHENDAKARIA: Alde

ALKATE-LEHENDAKARIA: Beraz, 11 aldeko bozka, urgentzia onartuzat jotzen da eta segidan eztabaidatzera pasako gara.

ANDONI ETXANIZ (TALDE MISTOA): egun ingurumena teknikaria den Aitor Iburguengoitia Gerrikagoitia jauna Zumaiako Udaleria etorri aurretik Vallehermoso enpresan lanean jardun du eta zenbait lan bukatzeaz dituela eta, hilabete batzuetan udaleko ordutegitik kanpo burutu ditzakenez, udaleko lanaldiarekin bateragarritasuna eskatzen du.

Giza Baliabidetako teknikariaren iritziz Zumaiako Udalean burutuko duen jarduera publikoa zeharo bateragarria da Vallehermoso enpresan egingo duen jarduera pribatuarekin, ez bait du kasu honetan batek bestea galerazten. Hortaz, ez da 53/1984 Legeak zilegi ez dituen kasuetan sartzen.

Udalhitzek erabateko baliagarritasuna (disponibilidad) eta lanaldiaren luzatzeak gutxienez %25 osagarriarekin sarituko dela agintzen du. Hori horrela, bateragarria den jarduera pribatua egitea onartuko ez balitzaio %25 osagarriarekin ordaindu beharko lioke udalak.

Bateragarritasuna Plenoak onartu behar du.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Aldeko botoa

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA. (ARALAR/ALTERNATIVA): Aldeko botoa,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Alde

PILAR ETXABE IRIONDO AND. (INDEPENDIENTE): Aldeko botoa

ALKATE-LEHENDAKARIA (EA): Aldeko botoa

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 11 boto (4 EAJ-PNV; 3 Talde Mistoa; 1 EA 2 Aralar/Alternatiba; 1 Independiente)

Aurkako botuak: 0

Abstentzioak: 0

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 11 votos (4 EAJ-PNV; 3 Grupo Mixto; 1 EA 2 Aralar/Alternatiba; 1 Independiente)

Votos en contra: 0

Abstenciones: 0

Laugarren puntua: **ESKARI ETA GALDERAK**

Zumaiako Udalak Haitirekin elkartasuna adierazten du eta larrialdietarako udalak bideratzen duen portzentaiaren zati bat Haitira bidaliko da beraz.

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat ematen du, arratsaldeko zortzirik hogei gutxi direnean eta nik Idazkariak fede ematen dut,

Alkateak,

No habiendo más temas que tratar, el Alcalde-Presidente dá por finalizada la sesión cuando son las diecinueve horas veinte minutos y yo el Secretario doy fé,

Idazkariak,

